

Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu-tituluaren 2. edizioa (2008-09)

Hizlariak elkarrizketatuta www.berria.info webean
agerturikoen transkripzioak

HUMANITATE ETA
HEZKUNTZA ZIENTZIEN
FAKULTATEA



Euskal Kulturgintzaren

**Transmisioa
aditu-tituluaren**

**2. edizioa
(2008-09 ikasturtea)**

Hizlariak

**elkarrizketatuta
www.berria.info webean
agerturiko bideoen
transkripzioak**

MAIALEN LUJANBIO (2009-01-14)

Datu mordo bat eman dizkigute eta, beharbada, hori da errealitate bat askotan gu jabetzen ez garena. "Ez garena" esaten dudanean, adibidez, gu, bertso mundutik, askotan, bertso munduan badaukagu sentsazioa Euskal Herriaren nahiko pultsu erreala daukagula, oso-oso eremu zabalean ibiltzen garelako.

Baina, era berean, gure ikuspegia oso partziala ere bada: gu oso eremu zabalean ibiltzen gara baina oso jende zehatzarekin. Gu, igual, Galdamesera goaz eta hango euskaldunekin egoten gara; edo joaten gara Tafallara eta hango euskaldunekin egoten gara. Eta horrek distortsionatu dezake begirada, eta pentsatu dezakezu: "Ez gaude hain gaizki, ezta?"

Hortik, diot, panorama orokorra pixka bat haratago begiratzen hasita, nahiko ezkor-edo, bukatu nuela. Uste dut, guk, bertsotatik, ikuspegi partziala daukagun bezala, orokorrean ere nahiko ikuspegi partziala daukagula kulturaz, edo euskal kulturaz, edo Euskal Herriaz beraz ere.

XABIER AMURITZA (2009-01-14)

Bakardadeak sormenean izugarriko garrantzia du, alde batetik, bakardadean garatzen delako. Nahiz eta gizartean bizi, nahiz eta motibazioak halako puntuak edo printza sozial batzuk bizitza sozialetik hartu, gero konposizioa bakarra da, artea indibiduala da, batek sortzen du. Elkarrekin sortzekoak? Bai, badira elkarrekin interpretatzekoak baina, sortzea indibiduala da.

Orduan, batek bakardadea behar du sortzeko, ordu asko bakarrik, lanean, kontzentratuta. Gero, nik aipatu dudan haurtzaroko bakardade horrek asmaziorako, fantasiarako eman zidan bidea... horregatik: orain dela mila urte, orain eta beti edozein haurrek, bakarrik baldin badago, zerbait asmatzen ari delako. Nik horretan eman nituen haurtzaroko eta gaztaroko urte gehienak eta horrela geratu zait, itsatsita, halako "bizio" bat bezala. Eta bizio hori behar da sortzeko.

Tristura sortzailea baino areago zanpatzailea da baina tristura da sortzen denari bestelako kolorea ematen diezaiokeena. Haurtzaroko eten batetik sorturik, gainera, halako tristura existentzial bat (baina hitz hori ez zait gustatzen) halako zerbait gelditu zait itsatsita orduan gertaturiko eten horregatik.

Gero, tristura gogoaren egoera bat, egoera animiko bat da, ez da oso zehatza baina bai oso sentibera. Tristura oso sentikorra da: tratatzen duzun gaia tratatzen duzula, umorea bera bada ere, tristuraren senak hor inguruan badira, kolorea ematen, sakontasuna ematen, bariazioa ematen... laguntzen dute. Tristura ez da ona bizitzeko baina ezin dugu hortik alde egin (askotan, behintzat).

Tristurak ez dauka zerikusirik depresioarekin, hori beste kontu bat da. Tristura da halako malenkonia bat, sensibilitate puntu bat, eta horrek asko laguntzen dio sormenari, beste dimentsio bat ematen: ipuin xelege bat kontatu nahi baduzu ere, hor, zure barruan beste ahalmen batzuk daukazu haria gidatuko dutenak. Laguntzaile handia da. Nik uste dut artista guztiek, benetakoak izan direnek, badutela tristurarekin zerikusi handia. Edo, behintzat, tristurarekin jokatzeko badakite.

IÑAKI ARRUTI (2009-01-21)

Jokoa zertan aldatu den? Udalean ematen genuen zerbitzuaren ikuspegitik (udal erdaldun batetik nator ni), beste zentralitate bat hartu dugu, oraingo hau ez da txokolatea banatzen zuen haren parekoa. Baliabide aldetik, lehen baino askoz ere gehiago dauzkagu. Orduan ez geneukan baina orain badauzkagu udaletxe, ikastetxe, euskaltegi, euskara elkarte eta norabide bertsuan gabiltzan gainerakook osaturiko sare bat: hori ikusten dut inportanteena.

Burutzen ari garen programari dagokionez, hasieran baino askoz ere gehiago inbertitzen da komunikabideetan, lehen ez genuen irudikatzen lan munduan, enpreetan, aritu gintezkeenik eta gaur egun... egiten dugun lanaz hementxe daukagu liburu bat, gaur goizean inprentatik irten dena. Baina, logika teorikoarekin lotuta, uste dut funtsezko esparruak lehengoak direla: familia, eskola, eskolaz kanpoko jarduerak edo aisiaren mundu hori.

Udal mailan, hizkuntzaren transmisioaren klabeak lehen horiek ziren eta orain ere horiek dira. Hobekuntzak egin litezke baina, Fishman-en 6. urrats horretara begira... urtetarako daukagu.

MIKEL IRIZAR (2009-01-21)

Gutxi-asko, militantziaren galera horrek ekarri ditu aje horietako asko, nahiz hitz hori oso gustuko ez dudan: "harrotasuna" edo "aktibatzea" esan ordez, gaur egun seguru asko modernoago izango da "asertibitatea" esatea: badakit zeri deitzen zaion, badakit nola jokatu behar den gai horretan eta, hizkuntza-gatazka horretan bada, biren arteko gatazka izango da, izatekotan, baina hori nik ez dut bataiatuko.

Arko, Debagoiena eta horietan, arrakastaren giltzarri ugarietako bat profesionaltasuna eta militantzia, batera, lortzea izan da, hau da, baldin badago egitura profesional bat lanik handiena egin edo denbora-dedikaziorik handiena sartzeko, horren inguruan, sustatu daiteke militantzia. Gerta daiteke, eta neurri batean gertatu zitzaigun, euskalgintza zati bat agintera iritsi zenean, herrigintzari uztea: "Kito, aurrerantzean, profesionalek egin dezatela..."

Ez, ezta inondik ere. Hor, ene ustez, uztartu behar dira agintearen ahalmena eta gizartearen kemena, eta profesionalaren dedikazioa eta gaitasunak, eta militantziaren indarra... dena.

JONE MIREN HERNANDEZ (2009-01-28)

Nire tesia, neurri batean, bilaketa da, transmisioa ulertzeko eta definitzeko zerbait egokia bilatzen ari nintzelako. 1997ra arte —tesiarekin hasi nintzen garaian, alegia — eginiko lanak kuantitibistak ziren gehienbat, hots, inkesten bitartez saiatzen ziren ikusten familia euskaldunetan zenbat transmititzen zen euskaraz, zeintzuk ez, familia mistoetan... Edo, beste aldetik, zegoena zen definizio bat, testuinguru zehatz bati erabat loturikoa: herri txikietan eginiko definizioak eta ikerketak, baserri giroko komunitate oso euskaldunetan. Ni bestelako zerbaiten bila nabilen, Lasarte-Oriako kasua aztertzeke oso bestelako zerbait behar nuelako.

Nik planteatzen dut ordura arte definizioa oso lineala zela. Hor planteatzen zen zer daukagun —kasu honetan, hizkuntza—, zer pasatu dugun, zer transmititu dugun eta zenbat transmititu dugun. Beraz, oso ikuspegi lineala zen: iraganetik aurrera zenbat gelditu zaigun agertu nahi omen zen.

Hor, ene ustez, beste zerbait falta zen: transmisioa ez da "nik badaukat zerbait eta hori pasatzen dut" baizik, hor tartean, aldaketak gertatzen dira: nire baitan, pertsona bezala, nire gertuko komunitatean, gizartean orokorki... aldaketa horiek ez zeuden jasota definizio horretan eta niretzat inportanteena horixe zen, aldaketa horiek definizio horretan txertatzea. Batzuetan, pertsona baten bizitzan ez ezik, maila kolektiboan ere "jauziak" gertatzen dira.

Lasarte-Oriako kasuan jauzi horiek aztertu behar genituen: gure herrian euskara joan da galtzen, galtzen, galtzen... baina une batetik aurrera hasi da irabazten, irabazten, irabazten... Orduan, badago galera bat, baina prozesu horretan niri interesatzen zaidana da nolako aldaketak gertatu diren, bestelako prozesu berria martxan jartzeko.

Hori aztertu dezakegu maila indibidualean (ni horrela aritu naiz, elkarrizketa batzuk eginez), baita maila kolektiboan ere.

JOSE MARI AGIRRETXE “PORROTX” (2009-01-28)

Gu lasarte-oriarrak gara eta herrian, orain 25 urte, erdara nagusi zen kalean. Haurrek ikasten zuten, A edo D erduan, baina, egia esateko, euskaraz egiteko aukera handirik ez zegoen; pentsa: mendi elkarteetan, dantzari taldetan eta horrelakoetan ere erdaraz egiten zen.

Orduan lagun talde bat bildu eta erabaki genuen: "Zerbait egin behar dugu euskara kalera ateratzeko eta, euskara kaleratzeaz gain, euskaldunoi euskaraz egiteko aukera emateko". Eta horrela hasi ginen, Olentzero prestatzen. Horrela, urteak eta urteak.

Behin deliberatu genuen Olentzerori ongi etorri alai bat ematea, eta honela, egun bateko kontua ohitura bihurtu zen. Eta afizioa ofizio bilakatu zitzaigun batzuei. Gu

hasi ginen "euskaraz alaitasunez" alaitasuna eta maitasuna batu nahian, den-den-
dena pentsatzen eta alaitasunez egiten denean.

Hasieran, zartaginez eta, arrautzak puskatzen hasi ginen baina, halako batean esan genuen: "Kontxo, bizitza osoa ez dugu pasako arrautzak puskatzen. Zergatik ez dugu hitz egiten eguneroko gauzez, goizeko ordu txikitan "Berria" hartu eta hor irakurtzen ditugunez?" Orduan, poliki-poliki hasi ginen jorratzen naturaren kontua, familiarena, maitasun kontuak, etorkinenak, kultur ezberdintasunenak... gai desberdinak alaitasunez lantzen euskaraz, alai eta partekatuz, eman eta jaso egiten dugulako. Bihotza, burua, eskua: sentitu, pentsatu, ekin, elkarrekin.

KOLDO ZUAZO (2009-02-04)

XVI. – XVII. mendeetan euskalkiak arazo zirenez, eurek diagnostiko bat egin zuten: "Zergatik daude euskalkiak? Herria bitan zatituta dagoelako, bi hizkuntza ofizial ditugulako, gure herrian gure hizkuntza ofiziala ez delako, eskoletan irakasten ez delako... beraz, gramatkarik ez dago, jendeak ez du idatzian erabiltzen hizkuntza hori, eta gure artean harremanik ez dagoenez, hizkuntza apurtu egin da.

Helburua zein den? Dialekto horiek gainditu eta euskara bat egitea. Larramendirekin aldaketa bat etorri da: Larramendi kanpora begira ari da, batetik, euskararen apologia egin nahi du Espainiako jendearentzat. Bestetik, hemengo jende eskoladuna eta diruduna konbentzitu nahi du euskara ez dela hizkuntza pobre bat eta landu behar dela euskara. Euskara prestigioz jantzi nahi du, jendeak erabili dezan.

Horretarako, lehendik zetorren mito batean oinarritzen da: euskara eta euskalkiak Jainkoak berak sortutakoak direla eta, halakotzat, baloratu eta erabili behar ditugu...

Polemika horretan espainiarrek diote erromatarren garaietan hizkuntza bat baino gehiago aipatzen direla. Larramendik arrapostu: ez dira hizkuntzak, euskararen dialektoak baizik baina, biziki desberdinak direnez, euskaldunok ere ez ditugu ulertzen.

Horrela sortzen dira mito horiek: euskaldunok ez dugula elkar ulertzen (arrunt kaltegarria euskaraz ikasi nahi duen jendearentzat); euskalki guztiak onak dira beren tamainan eta, hortaz, denak babestu eta erabili behar ditugu. Horrek zer dakar? Euskara bakar bati indarra eman ordez, euskalki den-denetan ahalegindu behar dugula, ts, euskara baturik ez eta euskalkiak bai. Sabino Aranak bultzada latza eman zion dinamika horri eta prozesua apurtu da 1964 urtean.

Euskalkien balioa horixe da: hori da euskaratik gelditu zaiguna, txarra izan, ona izan, baina horixe da daukaguna. Eta hortik abiatu behar gara hizkuntza bakarra egitera. Ezin dugu esan, euskalkiak txarrak direnez, zakarrontzira bota eta beste hizkuntza bat asmatu behar dugula, hori hondamendia izango litzateke.

Daukaguna ez dela guk nahi genukeena bezain ona? Baina horri heldu behar diogu, horixe baita daukaguna. Orain ahalegindu behar gara euskalkietan zabalduen eta sendoen dagoenari lehenetasuna ematen. Ez gaitezen txokokeriatan hasi. Herrian hitz hori baldin baduzue, erabil ezazue hori herrikoekin, baina Euskal Herri osora iristen den hedabide batean, euskara bizian gehien zabaldua dagoena erabili beharko dugu, hitzak asmatzen-eta hasi gabe, ezta?

KIKE AMONARRIZ (2009-02-04)

Orain esango genukeena da gazte-hizkera edo euskara gaztea delako fenomeno hori ez dela berria eta ez dela gurea bakarrik. Batetik, beti izan da euskararen barruan, euskaldunen artean, euskararen kalitatearen inguruko kezka. Orain 200 urte horrelaxe pentsatzen zuten batzuek, gerra aurretik ere esaten zen euskara pobretzen ari zela... Gerra ondoren lehentasuna kantitateari eman genion, hiztunen kopuru ugaltzeari alegia, eta orain hamabost urte berriro azaldu da kezka hori.

Kezka hori, maila batean, unibertsala da eta hizkuntza ukipenezko egoera guztietan gertatzen da hizkuntz abatek bestearengan eragina izatea eta, normalean, hizkuntza menperatzaileak edo hizkuntza indartsuenak hizkuntza menperatu edo ahula kutsatzen du. Hori da gaiaren aspektu bat.

Bigarrena, teknologiaren eraginez eta digitalizazioaren eraginez, komunikatzeko sistemak sortu dira mundu guztian —batez ere, sms bidaltzekoak, Twitter, messenger, etc.— eta hor hizkera berri bat sortu da. Lehenago, hizkera informala bakarrik ahozkoa zen baina azken hamarkada honetan mundu osoan hedatu da idatzizko hizkera informal bat ere.

Orduan, gurean nahastu da gure hizkuntza normalizazio prozesuak, berez, dakartzan aldakiekin (batua euskalkiekin, etab.), hizkuntza ukipenezko egoerak dakartzan ondorioak eta, gainera, teknologia berrien eraginez sorturikoak.

Orduan, alde batetik, oso azti egoteko fenomenoak dira, gure hizkuntza normalizazio prozesua bera baldintzatu dezaketelako, baina, bestetik, hori ez dugu neurritz kanpoko larritasunez hartu behar.

Nik uste dut hurrengo urteetako erronka larriena erabilera dugula; batetik, ezagupena indartu baina, batez ere, batez ere, erabilera. Azken batean, erabilera indartzen dugun neurrian ezagupena bera ere hobetuko delako. Momentu honetan gazte euskaldun gehienak, jatorriz, erdalduak dira. Horiek euskaraz benetan ikasiko badute, erabiliz izango da. Erabilera hori izan daiteke aktiboa —besteekin hizketan— edo, bestela, pasiboa —kontsumoa sartzen da aspektu honetan—.

Eta iruditzen zait hurrengo urteetako gure lehentasunik handiena kontsumo hori bultzatzea dela edo, termino modernoetan esanda, euskarazko kultur kontsumoa eta kultur merkatua handitzea. Horrek ez du esan nahi lehentasun osoko produktu kualitatiboki inportanteak baztertu behar ditugula: beti behar izango ditugu punta izango diren eleberriak, diskoak, proiektuak, etab. Baina iruditzen zait momentu honetan irabazi behar duguna —euskaraz bizi ahal izateko eta hizkuntza normalizazio prozesua indartzeko— batez ere, kontsumoa. Egin behar ditugula

asko irakurriko diren liburuak, asko ikusiko diren pelikulak euskaraz, asko entzungo diren diskoak edo horien ordezkioak... hori lehenetasun osoko zaigula.

EÑAUT ETXAMENDI (2009-02-18)

Etorkizunari begira, esan dezaket gure adinik ederrena, hoberena (berrogeita hamar urte horiek) tentsio psikologiko, emotibo eta intelektual handi batean iragan dugula. Frantses estatua etsai, likitsa, gaiztoa, tzarra, zakurra... eta bertako jendea, mugitu ezinezkoa: pisua, oso kontserbadorea, eta horrela.

Eta horiekin guztiekin bazen, gainerat, jauzi handi bat maila kulturean herriko jendea, eskola primarioa pixka batekin gelditua, eta oso txarra, ez baitzen eskolatua bere hizkuntzan, ez alfabetatua bere hizkuntzan eta, ondorioz, frantsesa oso gutxi edo gaizki egiten zuen eta gu, aldiz, Unibertsitatean pasatutakoak ginen.

Horrek ekartzen duen jendearen partetik mesfidantza bat bezala, eta gu ere, gazteak ginen, ez genuen berehala ulertzen problemaren harat-hunatak zer ziren. Hori

guztiagatik ikusiz orain gizarte-geruza herri batzuk. — Laborantza: Ganbarakoak eskolatan jardunak eta orain irakasleentzat ari diren andereño eta horiek, Baionako Euskal Ikasketetan... — ari diren horiek guztiak ikusiz, pentsatzen dut zahartzaroa zorionezko izanen dugula, iruditzen zait ez dugula triste izaterik, gaztaroa gogorra baitugu ukan.

Nolanahi, gauza historikoa da, abertzalegoa gizarte batek sentituz geroztik, ikusiz geroztik zer ondorio kultural, ekonomiko, afektibo... lortzen duen hortik, atzera egitea ezinezkoa da. Berandu egiten ahal da (taktika politikoekin, etab.) bi Euskal Herrietan, bai Ipar, bai Hegoaldean, kanpotik etorritako jende asko dago eta bi estatuak ahal duten guztian saiatzen dira hori erdiesten eta, horretan bermatuz, pentsatzen dute euskal giro hori irentsiko dutela.

Nik ez dut uste. Eta badira, gainera, seinale batzuk, azpimarratzeko modukoak: nire semea, hemen izan den hori, irakaslea da eta Ezterenzubin, sortetxean, segitzen du etxaldea, pottokekin eta horrela, baina Angeluko ama-eskolan euskara irakasle da, jardunaldi osoz: bere umeen gurasoen %80 kanpotik etorritakoak dira.

Alta, plaga edo zauriak baditugu asko. Gure zauri guztiak izaki, oraindik gure jendea edo gure jendartea gai da sedukzio bat izateko kanpotik heldu diren guraso gazte horiek beren umeak euskal eskolan sar ditzaten. Bada hor kontu bat, Orbaitzetan eta Otsagabian eta, entzuten dena: "Bai, euskaraz badakite umeek baina etxean erdaraz egiten dute." Baina hori normala da: gauzak ez dituzu horrela kanbiatzen, egun batetik bestera. Hori umetan gertatzen da; gero, hamazortzi edo hogeitun urtetan, nortasuna loratzean, orduan irekitzen dira eta jabetzen dira beste kulturez eta, Baionan edo Angelun bizi badira, euskal kulturaz.

Orduan, etsaiak, Paris eta Madril, nahiko listoak dira zurikeria batzuetan aritzeko.

Konparazio baterako, bortizkeria berek piztutakoa, zizelak tiratzeko eta horrela, beren koloreekin, beren inperialismoarekin... horretan badakite. Baina

gauza bat ez dakite: populu baten baitan maitasuna, afektibitatezko kulturari lotua den pasio hori lantzen ez dakite.

Eman dezagun adibide bat: Frantziak Alsazia galdu izan du, aleman herria izan da, eta 1945ean berriro bildu duenean, Alsazia frantsestu nahi izan du. Horretarako, Europako unibertsitaterik ospetsuena Estrasburgon jarri du. Horrela lortzen du Frantzia mailan diren kalitate hobereeneko irakasleak. Horiek gorabehera, alsaziarrek alsaziar segitzen dute. Nik pentsatzen dut ez dutela irabaziko sokatiran euskaldunekin. Ez dute irabaziko. Horretan, kulturak sekulako indarra ekartzen du.

Euskarari buruz badira, gutxienez, bi mito, parez pare. Bata, euskara seniderik gabeko hizkuntza bakarra da munduan. Bestea, indoeuropar jendeak edo arraza: gerlari itzelak, Europa guztia konkistatu dutenak eta beren kultura, hizkuntza eta beren instituzioak inposatu leku guztietan. Bi mito.

Euskarak ez duela ezer ikustekorik indoeuropar hizkuntzekin: erkaketa lana, zientifikoa, ez da egina izan orain arte. Sistematikoki ez da egina. Badira hor ariketak, latinarekin eta abar, baina horrelakorik ez da egin; "gure gramatika oso berezia da, estruktura berezia du euskarak" eta abar, bai, baina lan sistematikorik ez da egin eta ni saiatu naiz lan hori egiten, gaur egungo metodologiaren arabera. Hizkuntzen hitzen estruktura nola ireki, bilatu erroa non den, mekanismo morfologikoa, hitsaren egitekoa nola den eta... zer ikusten duzu? Euskara ez da bakarrik indoeuroparra, seguru asko, niretzat, aurre-indoeuroparra da.

JON SARASUA (2009-02-18)

Modernitatea, martxan dauden gure ideologiaren iturburu moduan. Modernitateak ekoiztu dituela zenbait pentsamendu, ideologia... eta, nolabait esateko, gaur egungo belaunaldi progresistak hartu dituen ideiak, bere politika pentsatzeko eta gizartea pentsatzeko, baina modernitate horrek ez duela ekoiztu nortasunaren gramatikarik; bai askatasunarena, bai berdintasunarena, bai...

Hau da, Frantziako Iraultzak *égalité*, *liberté* eta *fraternité*, baina ez zegoen *identité*, hau da, nortasunaren inguruko gramatika bat ez duela ekoiztu modernitateak berak eta gabiltzala, nolabait, modernitatearen bertsio desberdinen ideologia liberal, sozialista eta antzekoekin, holako *mix* progresista oso ahula daukagula gaur egungo euskal klase politiko, klase intelektual edo klase... idazleen trasfondoan dagoen ideia-humusa. Ideia progresistek ez dutela ematen gurea bezalako kasuan dagoen nortasun-gatazka batean edo *community* hizkuntza-gatazka batean kulturaren, hizkuntzaren, nortasunaren... garapena pentsatzeko gramatikarik ez dela.

Arrangura da fundamentu oso gutxirekin abiarazitako hizkuntz politikak daudela baina, era berean, hizkuntzari buruzko gogoetak ere, mikrofonoa jartzen den lekuan: idazle inportanteenak, etab.

Objektu horri begiratzean sentitzen dut atximur txiki bat, iruditzen zaidalako gramatika horren elementu batzuk azken hamarkadetan joan direlako ekoizten: soziolinguistikaren inguruan, Sánchez Carrión-en pentsamenduaren inguruan eta beste hainbat elementutan: hizkuntz komunitatearen kontzeptua ulertu gabe eta dialektika horretan subjektua kokatu gabe ez da ezer ulertzen; hizkuntza baten berreskurapena, behintzat, ez.

Orduan, lasai asko hizkuntz politikak eduki ditzakegu, kontzeptu horren esanahia asumitu gabe, edo hegemonia espazioen debatea, edo elebitasun sozialaren ezintasuna, hots, elebitasuna nola eta zein espaziotan gerta daitekeen eta zenbateraino den gezurra utopia elebidun orekatu bat, adibidez, eta horrek nolako alternatibak dituen, eta zein espaziotan, eta nola garen komunitate desberdinetako partaide, eta hori zenbateraino izan litekeen aberasgarria baina, aldi berean, hizkuntz komunitate baten bizitzako minimoak, edo hizkuntz komunitate bat garatzeko bizi-espazioak zeintzuk diren eta zeintzuk ez, eta zein esperientzia dauden hor...

Hor, azken finean, diziplina bat dago, nortasunaren gramatika bat: elementu batzuk, emanda daudenak, eta beste batzuk, sortzen ari direnak.

Bertsolaritzaren kasuan, nolabait, hala izan da: merkatuaren botere-gunetik, estatuaren botere-gunetik ez, baizik hirugarren botere-gunetik, gizarte zibilaren

botere-gunetik atera da bertsogintzaren bisioa, estrategia eta praktikaren pisua. Nik uste dut, hala ere, etorkizuna hirugarren zirkulu horretan datzala esatea gehiegizkoa litzatekeela. Uste dut hiru zirkuluak konbinatzea eta funtzioak banatzea dela kontua.

Egia dena, nire ustez, Euskal Herriari herriei darizkion elementuetako bat auto-eratzeko sen hori dela, oraindik bizirik dagoena, arrazoi zahar eta berriengatik, eta nerbio zibil hori badela gako gauza askotan eta, etorkizunean, nerbio zibil hori nola elikatzen dugun eta hori botere publikoekin eta merkatuarekin nola artikulatzen dugun... hor egongo direla erantzunetako batzuk.

Eta gehiegizkoa dela esatea hor datzala dena: uste dut botere publikoek badutela beren papera eta merkatua espazio saihestezina dela. Hori garbi dago baina, aldi berean, hirugarren elementu hori gabe gure errealitateak ez direla ulertzen eta gure irtenbide asko ere ez direla sumatzen.

JUAN CARLOS ETXEGOIEN “XAMAR” (2009-02-25)

Beñat Oihartzabal euskaltzainak emandako bidetik ikusten da, ene ustez, gaizki esplikatu den gai bat: zergatik zabaldu den Ipar Euskal Herrian euskara horrela, literatur mugimendu bat eta klasikoak sortuz. Zergatik izan den Iparraldean euskaraz idazteko (eta irakurtzeko) tradizioa. Desberdintasuna nabarmena izan da. Orain arte horren arrazoia ekonomia dela esan izan da: ongi zegoela ekonomia eta horrek bideratu zuela.

Nik uste dut hor baldintza soziolinguistikoak izan direla inportanteagoak eta, orain, Txepetxen teoriaren arabera, ongi kokatzen ahal ditugu elementu horiek guztiak. Horietako bat da latinak betetzen zuen kultura- (eliza-, etab.) -hizkuntzaren tokia, Europan halako batean suertatzen da *lingua vulgaris* deituriko horiek betetzen zuten tokia euskarak betetzea.

Hegoaldean espainolak lehendik salto hori egin zuen, errotuagoa zegoen, Europan hori egin zuen lehendabizikoetariko bat izan baitzen, eta XVI. menderako bazuen pisu bat jende ikasien artean, hain zuzen. Eta hizkuntz komunitate espainolak eraginiko presioagatik.

Iparraldean, aldiz, hori ez zen gertatzen: frantses komunitatea bizpahiru mende geroago oraindik aski txikia zen (ikusten dugu Iraultza garaian oraindik gutxiengo batek soilik ezagutzen duela frantsesa ongi, gaur egun, frantses Estatuan) eta, beraz, ene ustez, herri hizkuntzak (euskarak, gure kasuan) maila hori betetzea bideratu zuen: xume, nahi baduzu, baina irakaskuntza sistema bat sortu zen, Elizaren menpe edo gerizpean, hasiera batean, baina atxiki zuela eta segurtatu zuela alfabetatze minimo bat euskaran.

Horrek esplikatzen ditu klasikoen garapena eta Iparraldeak oraintsu arte izan duen tradizio literario hori, nire ustez.

JULEN AREXOLALEIBA (2009-02-25)

Nik joratu dudan gaia, apologista eta euskal idazleen artean, historian zehar, binomio horretan gertatu dena izan da. Hor hasi gara, atzetik, Iparraldetik, Etxepare, Lizarraga, Axular... horiek denek euskaraz idatzi dutela ikusi dugu. Hegoaldean garai berean idatzi izan dena, ia den-dena, gaztelaniaz izan da.

Binomio horretan, apologisten helburua, hartzaillea nor zen bilatu dugu. Laburbilduz esan daiteke apologistek ez dutela euskal jendearentzat idatzi. Aitzitik, euskara gaitzesten zuen jendeari autoafirmazio moduko bat begien aurrean jarri nahi izan zieten, aurretiaz beste hainbat kulturatan erabilitako irizpide bertsuekin.

Beraz, iberismoaz eta *vasco-iberismoaz* eta, hitz egiten dugunean, horixe da: zein handiak eta zein onak garen euskaldunak, nobleziaren aldetik, zein antzinakoa den euskara eta, nondik ekarri zuen Tubalek, Espainia osoko eta, beste batzuek, (Petrochegutik eta) are Europa osoko hizkuntz izan dela esaten zuten.

Baina jauntxoek garai horretan lagundutako apologiak frogatu nahi du euskaldunok eta euskara nobleak garela, *hijosdalgo*, noblezia badaukagula, eta badaukagula Espainian aitzindari izateko makina bat arrazoi.

Iparraldera begiratuta, Etxepararen, Axularren... hartzaillea euskal jendea da. Beraz, batzuek euskal jendearentzako egin dute proiektu kultural bat eta apologistek proiektu politiko bat egin dute, ez euskaldunei begira, baizik datozen kritika horiei aurre egiteko.

ANE LARRINAGA (2009-03-04)

Ene interbentzioaren hasieran egin ditudan baieztapenetako batzuk agian eztabaidagarriak izan daitezke.

Esan dut, esate baterako, hiztunek hizkuntzarekin daukaten harremana ez dela espontaneo, berehalakoa edo naturala izaten, baizik eta kontuan hartu behar dela kulturgileek hizkuntzari buruz sortzen dituzten irudikapenek-eta nolako eragina izaten duten harreman horretan. Hor, bitartekaritza-lan bat da kulturgileen aldetik eta, orduan, lan hori kontuan hartu beharko litzatekeela.

Bestetik esan dut kultur4gileek hizkuntza-corpora aldatzeko saioak egiten dituztela eta saio horiek ere kontuan hartu beharko liratekeela, hau da, hitz batean, kulturgileek hizkuntzaren inguruan egiten duten lan intelektuala ere kontuan hartu beharko litzatekeela, hizkuntza-komunitate batean azterketak egin edo praktika linguistikoak aztertzeko orduan.

JOSE RAMON VITORIA (2009-03-04)

Euskal musika eta dantzaren paradigma berri batean kokatzen gara: bertan, garrantzia ematen diegu ondare eta tradizioari eta gutxiago, agian, kultur irudikeriaren asmoei. Ene ustez, paradigma hori eta berak suposatzen dituen balioak ere aldatu behar dira. Euskal Herriko musika eta dantzaren inguruan gabiltzanok gehiago eman behar diogu herriko tradizioari baina herriko irudikeriaren eta nortasunaren identifikazio horretan eta identitate horretan agertzen den ardatz nagusia, eta ez tradizioa edo errepikapenaren transmisioa.

BEGOÑA BILBAO, GURUTZE EZKURDIA, KARMELE PEREZ (2009-03-04)

Oinarria da ikerketa lana. Doktoretza tesiak egiterakoan abiatu ginen honetan eta gure lana da Euskal Herria, euskaldunok eta gu, gure izaera, gure hizkuntza, bizi garen lurraldea, gu zelan bizi garen, gure garapen ekonomiko soziala... hori zelan islatzen den testu-liburuetan, hau da, zer ikasten den Euskal Herriko eskoletan gure buruaren inguruan.

Horretan aztertu dugu bosgarren mailarako euskaraz argitaratu den guztia, XX. mende osoan eta 2006 urtera arte. Lau epe mugatu ditugu, egoera sozial, ekonomiko eta Hezkuntza Lege berriak edo argitaratu diren legeak oinarri hartuta, horretaz sailkapen bat egin dugu eta aztertu ditugu 98 testu-liburu, gehienak euskaraz, gure interesekoa delako euskaraz zer ikasten dugun Euskal Herriari buruz.

Konparaketak egiteko-eta, gaztelaniaz argitaratu diren batzuk eta frantsesez argitaratu diren beste batzuk ere aztertu ditugu. Ondorioztatu duguna da Euskal Herria izenez agertzen dela baina izanez saihestu egiten dela; gure kultura modu folklorikoan agertzen dela, oso modu laburrean; maiztasun gutxikoa dela eduki hori testu liburuetan; Euskal Herriko mapak ere geroz eta gutxiago agertzen dira, Hegoaldean autonomi ereduak gailendu delarik. Iparraldean, estatu ereduak da nagusi.

Hortik gora, irakaskuntzan beste neurri batzuk hartu beharko genituzkeela eta gure ustez, ezinbestekoa dela gure izaera sozio kulturala agertzea eta izaera sozio kultural hori egoera politikotik banandu behar dela, hau da, egoera politikoa edo banaketa politikoa, mapakoa, lurraldeena, etab., bigarren mailako kontuak direla eta oinarritzat Euskal Herria hartu beharko litzatekeela.

XABIER MENDIGUREN (2009-03-11)

Nik uste dut ekonomiarekin eta profesionalizazioarekin gehiago konektatu dugula, inportantzia handiko bi gauza horietatik pasatzen baita etorkizuna. Militantismo dosi bat salbatuko da, baina aurreko horiek oso beharrezkoak dira, hots, behar ditugu leku txukunak, ondo antolatuak, tresna egokiak eta gauzak adarretatik hartu eta profesionalki burutzeko kapaz izango den jendea.

Lehen ezin zitzaigun hori eskatu: leku ilunetan, tristeetan, ahal zen moduan, ilunabarreko lanetan beti, beste mila eginkizunetan nekatutakoan gauzak egitea... hori ez zen bidea. Hor, *full time* eta dedikazio serio batez, eta abar. Horretan irabazi dugu, ene ustez.

Euskara bera ere tresna zaildua, garatua, izugarria da. Nekez esplika dakiok gaur egungo norbaiti zer zen garai hartan artikulatu bat idaztea. Gaur egun dauzkagun lanabesak. Inzitegiak, Euskalbar... gauzak banaka-banaka aldatunik, beste umberso bat ari gara berregituratzen eta hori euskararen barruan gertatzea oso inportantea da.

Elhuyar bezalako enpresa eredu batzuk edukitzea: hor, gehienak emakumezkoak dira; hori ere harritzekoa da, bestetan ez baitugu hori lortzen, Kontseiluan ez dugu lortzen goiko agintaritzan emakumezkoak egotea. Geu ere generoaren aldeko apustua eginda gaude: ni esan eta esan ari naiz, emakumezkoak behar ditugu leku honetan baina... behetik gora ez dira pasatzen edo, ez dakit zer gertatzen den. Guk gizonezko eta emakumezko langileak orekatuak dauzkagu, baina goiko agintaritzan gaudenok gizonezkoak gara. Gauza horiek aldatzen ari dira eta, nire ustez, oreka lortu behar da.

Gaur egun, Interneten bitartez, hizkuntza gutxituak askozaz presenteago gaude munduan oro har daukagun kopurua baino. Hori gauza inportantea da. Lehen, munduan, euli kaka bat ginen gu baina gaur Interneten gure presentzia askozaz biderkatua daukagu eta "eus." hori martxan jartzen denean (katalanena eta, bezala) oraindik gehiago. Gauza batzuetan aurrerapausoak egin ditugu eta horiek seinale onak dira.

Nik beti ikusi dut euskalgintzan egon dela gune bat ilusioarekin lan egin duena. Nik ez dakit transmititzen asmatu dugun edo ez, baina ilusio hori gabe ez dira sortzen hainbat gauza eta sortu, sortu egin dira: EIZIE, Senez aldizkaria, bilduma horiek...

Bilduma horiek direla eta, gogoratzen naiz egon ginela... Aldizkari batean irakurri nuen Leninek adiskide zuen Gorkyri deitu ziola eta, Iraultza garaietan, fusilak oraindik ere gori-gori, honela esan omen zion: "Antolatu itzultzaile talde bat eta

hasi munduko literatura hoberena errusierara ekartzen." Nik hori irakurri eta, ene artean, "Guk zergatik ez dugu antzeko gauza bat egiten?"

Zuri esaten dizute itzultzaile eskola sortu behar dela eta, zein da zure erreakzioa, orain dela hainbeste urte? Hizkuntza batzuetatik itzulpenak egiten gutxi-asko banekien baina... "Nik, eskola bat nondik nora sortu behar ote dut?" Orduan, paper baten gainean jarri eta, dakienari galdezka hasi nintzen, eskutitzak idazten. Handik hilabete batzuetara programak jaso nituen, elkarren artean konparatu, txosten bat egin eta... Tira, hasi egin ginen.

Telebista eskolan, berdin: sekula eskarmenturik izan gabeak baina bikoizketak eta, aldi bereko interpretazioak eta... Miramonen autobus batetik egiten genituen debateak aldi bereko interpretazioarekin Euskal Herri osora banatzen ziren garai batean. Horra politikoak, artistak eta pertsonaiak etortzen ziren eta, hor ni, interprete-lanak egiten.

JOSEAN URDANGARIN (2009-03-18)

Datozen urteetarako txosten bat eginda dago 2009-212rako. Hor planteatzen diren helburuak hauek dira:

- 1) jarraitzea, sektoreen eta Administrazioaren arteko elkarlanarekin;
- 2) sakontasunean irabaztea, hau da, EA Eren mailatik kultur plangintzan udaletara edo lurraldeetara jaistea;
- 3) euskararen sustapena kulturean.

Orain arte urrats nabarmenak eman dira baina ikusita gure egoera, printzipioz, zeregin nabarmena dago datozen lau urte horietan.

Guk badaukagu kulturean espezializatzeko giza kapitala EAE mailan ez ezik, Estatuan edo Europa mailan baizik. Bigarrenetik, harreman asko ditugu beste Espainiako erkidegoekin eta, bestetik, gure potentzial kulturala optimizatu gabe dago oraino. Hirugarrenetik, guk badaukagu, euskararen aldetik, sormenaren irla berriak sortzearen beharra, hau da, beste hizkuntzek mimetikoki egiten dutena ez ezik, euskara lortzen duten espazio berrietara euskaraz lortu eta zabaltzearena. Eta baditugu sektore jakin batzuetan oso esperientzia interesgarriak bai ikus-entzunezkoetan (klusterizazio proiektuak), bai argitalpengintzaren munduan (alde horretatik dauzkagu bai euskarazko argitaratzaileak, bai gaztelaniazko argitaratzaileak, baina euren presentzia baina horien presentzia, esate baterako, kanpoko ferietan ez dauka zerikusirik gaur daukagunak orain bospasei urte geneukanarekin.

LURDES ARANGUREN (2009-03-18)

Kultura Behatokia sortu zen 2006aren uda ostean eta eragilea izan zen, Kulturaren Euskal Plana egin zenean, diagnostiko partekatuan, sektore guztiek eskatzen zutelako informazio konparagarria eta baliagarria izatea.

Ordura arteko informazioa oso zatikatua zen, ez zeukan jarraikortasunik eta ezin zen beste eremu zein beste lurraldeekin ere konparatu. Ez zegoen estatistika ofizialik ere... Orduan, Kultura Plana martxan jarri zenean informaziorik ez zen sektoreetan. Ikerketa batzuk egitea bultzatu zen, guk horien azterketa egin genuen lehendabizi, ikusi zen horietako batzuk ez zutela inolako baliagarritasunik, erantzun maila nahikoa ez zelako eta ezin zelako hortik ezer atera...

Orduan, gure lehenengo lan egituratzailea izan zen marko estatistiko bat lantzea.

~~Kulturaren Euskal Behatokian parte hartzen dute hiru Foru Aldundiek, hiru hiriburuek, Eudelek, sektoreetako ordezkariak...~~

Orduan, gure zera, sektorean bertan inplikaturako tresna bat da, tresna bat baino gehiago da guretzat, ezta? Hasiera batean pixka bat uztartu behar izan ditugu barruko lan sendo hori egitea, baina baita ere gauzak kanporatzea eta transmititzea eta, beste aldetik, hausnartzea, baina erabakiak hartzea ere bai. Hori guztia orekatuz landu behar izan dugu lehenengo urtea.

* Araba, Bizkaia eta Gipuzkoakoez ari da mintzalaria

JOSE ANGEL LASA (2009-03-25)

XX. mendea hasi denetik eta eman dituen aldaketekin, gauza asko eta asko. Guk har ditzakegu ziri sartze bezala eta, seguru aski, ez dira beti. Norbaitek esan duenean Tapiés-ena, adibidez. Ni seguru nago Tapiésen burutik horrelakorik inoiz ez dela pasatu. Ez zaio bururatu ere egiten txantxetan ari denik. Bera baino artista serioagorik, bera baino bere buruarekin zorrotzagorik... gutxi daude. Gertatzen dena da parametro horietatik begiratzen ez baduzu berak egin duena, pentsa dezakezu: "Hau, zabortegei batera joan eta han bilatu duena jarri du." Ez da egia. Tapiésék ez du horrela funtzionatzen eta, gainera, bere buruarekin oso zorrotza da eta, aldi berean, erabakitzea hainbeste kostatu zaion lan hori norbaitek ikusi eta berehala pentsatuko du: "Adarra jotzen ari zait."

Eta ez da bidezkoa pertsonaia bat, edozein modutan agertzen dena, bere burua agertzea gustatzen zaiona... ez da horrelako pertsonaia. Baina eragin dezake horrelako erreakzioa. Hori gertatu daiteke. Eta, hori bezala, imajinatu, gazte batekin, kolektiboetan, Estivil, Itinerantea... segun eta nola, nik uste baietz, posible da. Eta gero, batez ere, nik susmatzen dut —honekin, lehengora bueltatzen naiz— XX. mendean bide asko daude, batzuk ulergaitzak, gehiengo batentzat batez ere oso ulergaitzak... eta, gero, beste batetik, oso errazak.

Orduan, operazio bat oso erraza denean... Nik egiten badut botila bat hartu eta horren gainean boligrafo hau jarriko dut, eta botilaren inguruan... titulua jartzen badiot, zuk esan dezakezu: "Tira... posible da." Operazio horren inguruan, gurutze urdina... "Urdin gurutzatua". Zergatik ez diot hori jarriko? Zuk esan dezakezu: "Bueno, baina gorde hori zure etxerako, ez ezazu erakutsi." Eta hor, seguru asko, horrelako erraztasun asko dago, edozein lekutan kontatzeko eta erakusteko.

Orduan, hortik ziria jotzen edo adarra jotzen aritzera, gauzak ez ulertzea, inportantzia gutxiko gauzak erakustea... hori ere posible da. Eta aldi berean, "oso planteamendu demokratikoa" da: gure bizitza oso xumea da eta, orduan, zergatik ez erakutsi gure xumetasun hori artearen bidez ere? Guk dauzkagun eguneroko gauzak zer dira? Horrelakoak. Ez dira gauza epikoak, handiostasunekoak, oso txikiak dira. Orduan, txiki-txiki horiek ere zergatik ez dute balioko modu txikian, modu xumean kontatzeko?

Orduan, "ziri" esaten dugun hori hala izan daiteke eta, seguru, batzuetan, badela. Eta beti ez da egilearen ziri sartzea. Gero norbaitek kudeatu behar du, erakutsi behar du, eraman behar du, ordaindu behar du, hedabideetan agertu behar du...

Hori, une hauetan, Euskal Herrian periodikoetan agertzen diren gauzetatik batzuetan, gu harrিতuta ibiltzen gara: izugarritzko erakusketa ederra, ikusgai, eta periodikoetan agertzen diren gauzak, oso-oso arraroak. Norbaitek egiten du hau...

hori, ez dakigu nork. Hori askotan gertatzen zaigu, ez dugula ulertzen. Ez ulertze horrek zer esan nahi duen? Batzuetan, Berriaren kasuan adibidez, jende gutxi daukala, denbora gutxi, aukera gutxi leku guztietara joateko... Orduan, informazioa postaz iristen baldin bada ez dakit noren bitartez, askoz ere errazagoa da beste gauza batzuk lantzea baino...

Baina horrek bide egiten du horrelako ziriak hedabideetan agertzeko.

JOSE ANGEL IRIGARAI (2009-02-25)

Nik uste dut Oteizak artegintzan eginiko bidea oso baliagarria dela, berak bilakaera horretan, eskultura barne hustuz joan zenez, konturatu zen gero par horiek eta unitate horiek, konkaboak eta hutsarekin egindako horiek... uztartzera iritsi zenean konturatu zen eskulturaren barnean zegoen indar eragile nagusia hutsa bera zela. Ez bakarrik eskultura, fisikoki, hustu zuelako, baizik eta hutsa zela eskulturaren barnetik zerion indarra eta hori zela, hain zuzen ere, barne energia bat.

Hortik elaboratzen du gerora teoria hori: hutsa ezereza dela baina, era berean, betetasuna dela, energiak beterik dagoen gunea. Hortik etorriko da artegintzan kutxa metafisikoena eta hori dena; horietan, abstrakzio bat eginez, ez dira fisikoki eraikitzen dituen paretak eta eskultura-puska, baizik eta barnean mugaturik, bildurik, geratzen den espazio bat, espazio hori delakoan energia sortzaile, energia iturri.

Hori, ene ustez, teorikoki garatzen duen heinean, hasten da herri kulturean gertatzen dena ikertzen, eta batez ere fokalizatzen du, nik uste dut, harrespiletan, cromlechetan, ikasiz garai batean, orain dela lau, bost mila urte zer gertatzen zen artzaingoaren garai haietan, neolitikoan, harri aroan eta, orduan, harrespilari ematen dio uste gabeko interpretazio bat: ordura arte, Barandiaranek eta horiek esaten zuten horiek ehorts lekuak zirela, eta Oteizak, hori gainditu nahian esaten du, ehorts lekuak baziren ere, gehienbat zirela interpretazio estetiko baten ondorioz eraikitako artefakto estetiko espiritualak. Eta inguruko harriak inportanteak izaki, garrantzi handiena ez dela hori, baizik eta barnean, eduki edo bilduta baina aske utziz ere, sortzen zen gunea, espazioa, hutsa. Eta huts hori, huts handiaren, kosmogonikoaren, isla gisa hartzen zuen. Eta horrekin, bat-batean, jauzi kualitatiboa egiten du (batzuetan egiten duen jauzi mortal horietako bat) eta interpretatzen du euskal zibilizazioa, bere garaian, gailur batera iritsi zela eta hutsaren, ezerezaren eta, beraz, existentziarekiko kezka hori interpretatzera eta, halaber, gauzatzen. Eta hori gauzatuta zegoela bai, estetikoki, harrespiletan, eta hori nabaritzen dela, nabarmentzen dela, adibidez, dantzetan. Eta Urbelzek, lehenaldikoz, orduan ez bezala (orduan bakarrik baitziren ezpata-dantzak, auresku bat eta, horrela), orduan, beste plaza-dantza batzuk agertu zituenean (Baxe Nafarroako inauteriak, sokadantza, eta biran egiten diren horiek) eta eszenatokian ikusita edo plaza batean ikusita, herri baten erdigunean (plazak, frontoiak eta elizak mugaturiko bihotz horretan) hori dantzatuz, batzuetan erloju orratzen alderako norabidean, bestetan kontrakoan, bat-batean ikusten du ideia bera, dantzetan islatuta. Hori kultura askotan gertatzen da, noski, dantza ez da gure gauza pribatua, baina berak horri balio erantsi bat ematen dio esanez *cognitio* edo ezagutza hori, nahiz eta beste modu batez, islatzen dela baita dantzetan ere. Eta dantzari ematen dio zentzu (kasik) existentzial bat: dantza horren bitartez gizarte osoa integratzen da, uztartzen da, trinkotzen da, kide guztiak eskutik lotuta.

Horrek —asmakizuna izan, edo ez izan, hori egia zenbateraino den frogaezina denez— ate bat zabaldu eta bide oparo bat erakutsi dio konplexuz beterik zegoen gizarte bati, bere gauzak oso bigarren mailakotzat joak zituen gizarte bati, galera oso barneratuta zeukan gizarte bati eta, kualitatiboki, beste indar, beste eragin, beste erantzun bat ematen dio.

Nik uste dut, nahiz eta zientifikoki oso frogatuta ez egon, edo oso frogatzeko modukoa ez izan, poetikoki, metaforak diren heinean, ez dute frogaren beharrik. Inori ez zaio bururatzen, ez zaio otutzen ere poesia bat zientifikoki aztertzea, poesia ez baita zientziaren bitartez aztertzen, beste parametro batzuen bitartez baizik. Hizkuntzari buruz edo gauza hauei buruz Oteiza mintzo delarik, ez da zientziaren ikuspegitik aztertu behar, poetikaren ikuspegitik baizen. Poetikak ez al ditu eskaini behar beti balizko ortzi-muga berriak, ez al du eskaini behar beste mundu bat...?

Hori da metafora sortzaile izatea eta, nik uste dut, Oteiza izan dela poeta handienetariko bat gure Herrian.

JOSU AMEZAGA (2009-04-01)

Hitzaldian jorratu dudana da kultur aniztasunaren diskurtsoa nola landu beharko genukeen Euskal Herrian. Gai hori aspaldi honetan pil-pil dabil bai Euskal Herrian, bai herrialde aberats gehienetan edo guztietan eta diskurtso horretan, neurri batean, etorkinen azken jarioak eragin du.

Nik honela planteatu dut: batetik, estatuek eta estatu gabeko nazionalismoek kulturen aniztasunaren auzia nola kudeatu duten aztertu beharra eta, bestetik, gure aldetik, Euskal Herrian, gure errealitate sozial eta historikoa kontuan hartuko duen diskurtso propio bat garatu beharra: adibidez, etorkinen fenomeno ez dela berria Euskal Herrian, XX. mende osoan etorkinak hor izan baitira; gaur egun etorkintzat gutxi batzuk hartzen ditugu baina, nire ustez, horrek ikuspegia mugatu egiten du.

Bestetik, diskurtso propioa garatzeko kontuan hartu beharko genituzke jadanik dauzkagun ekarpen propio batzuk eta azpi-diskurtso batzuk ere bai. Esate baterako, azkenengo 40-50 urteotan Euskal Herrian etorkinak integratzeko erabili den diskurtsoa: euskal herritarra Euskal Herrira datorren guztia da, bertan lana egiten duena da edo, bestela, euskal herritarra bere burua euskal herritartzat duena da, alegia. Hori, osoa ez bada ere, adibide interesgarria eta gaur egun garatu behar dugun diskurtso hori garatu ahal izateko aukera polita iruditzen zait.

Hortik eta horrek dakarren eztabaidaren beharretik joan da, gehienbat, nire gaurko jarduna.

AMELIA BARQUIN (2009-04-01)

Hitzaldian, batez ere, immigrazioak hezkuntza sisteman sortu dituen egoera berriez aritu gara.

Alde batetik, hor daude kulturarekin lotutako egoerak: immigrazioa agertzearekin batera kulturak gelan dibertsifikatu egin direla esan dezakegu. Ikasleek dauzkaten erreferentzia kulturalak ezezagunagoak dira irakasleontzat. Badaude, baina, kulturarekin zerikusirik ez daukaten elementu batzuk, garrantzi handikoak, aniztasunaren trataeran "zailtasunak" sortzen dituztenak: epez kanpo matrikulatzea edo zortzi urtetik aurrera eskolatzea, eskola-ohitura desberdinak ekartzea... adibidez.

Bestetik, ikasleen egoerekin loturiko elementu batzuk daude: familia batzuek bizi dituzten egoera ekonomiko eta sozial zailak; batzuetan, bazterketaren muga, egoera juridiko eskasean... inoiz, giroan, harrera-gizartean izaten diren mesfidantzak...

Hori ere kudeatu behar da hezkuntza-sisteman. Horiek izan dira, nire ustez, jorratu ditugun gai nagusiak.

IMANOL GALFARSORO (2009-04-22)

Euskal Kulturaren Transmisioa gai nagusia izanik, ni kanpotik, Ingalaterratik etorrira, kultura kontzeptu bezala aztertu eta horrek, euskal kasuan, aplikaziorik ba ote duen jorratu dut.

Euskal kulturari buruz ez dut asko hitz egin. Nik uste dut azken hogeitun urteotan, adibidez, aldaketa handi bat gertatu dela: euskal kultura nola irakurtzen, nola sentitzen zen orain dela 30 edo 40 urte, eta horregatik "Nire amamaren aukera" bataiatu dut hitzaldia: ni ez naiz joan ikastolara, ni beste belaunaldi batekoa naiz. Nire amamak esaten zidanean "Etxean euskaraz egin, etxean behintzat euskaraz!", hori ez zen ekintza kultural bat, hori erresistentzia ekintza bat zen, amamarena.

Etxekoa ez zen euskararen aldeko diskurtso goratua: "gu diferenteak gara, euskara inork ez daki nondik datorren, gu herri zaharra gara" edo horrelakorik: hura ekintza politikoa zen.

Ni kanpoan naiz eta, horregatik, ezin dut baieztatu, ez daukat agian informazio larregi, baina pentsatzen dut gaur egun, euskal kulturaz eta euskarari buruz hitz egiten denean, hor egon dela aldaketa bat eta gaur egun euskara defendatzen dela, pixka bat, alde kulturalista batetik. Eta horrekin lotzen da gaur egun modan jarri den kultur aniztasunaren gaia. Nik uste dut hortik irakurtzen dela "euskal kulturaren diferentzia" eta hor, adibidez, erresistentzia politikoaren zentzu hori, hogeita hamar edo berrogei urte honetan, pixkatxo bat galdu egin dela.

Hori aztertu dut baina ez daukat zergatirik, ez dakit hori zergatik den horrela. Hori izan dira erantzun batzuk eta... horregatik izan da oso polita gaurko emanaldia: teoria abstraktu samar batzuekin etorri naiz baina gero hezurdura bat eman diot eta ondoren ikasleak saiatu dira mamia, txitxia, haragia jartzen.

Batzuek onartu dute nire ikusbidea. Kontua da, batez ere, errefusatzea apartekotasun edo berezitasunaren zentzu hori, eta kultura birpolitizatzea. Eta hori gertatzen ari da gaur egun ezkerreko pentsamendu berrian. Hori ere aztertu dut kurtsuan: kultura nola aztertu den mundu anglosaxoian ezkertiar ikuspegi batetik baina, azkenean zerbait ez dut esan, alegia, gaur egun, berriz, multikulturalismo liberal horren kontra nola hasi den sortzen pentsamendu ezkertiar berri bat, kulturaren birpolitizatzaren aldera doana. Hori, hemen, euskara dela, euskal kultura dela, kulturak nahastea dela... nik uste dut beldur asko dagoela baina... ez dago besterik, ez dago bereizterik: ezinezkoa dena da "ni euskaltzale naiz baina ez naiz politiko", horrek ez du zentzurik... nire ikuspuntutik.

TXOMIN PEILLEN (2009-04-22)

... eta gero, ordea, modernismoaz mintzatu nahi nintzen, zeren hori nik bizitu egin dut sortzean. Askotan esaten da 1950etik 1960era luzatzen dela. Batzuek esaten dute modernismoa hasten dela Atxagarekin eta Saizarbitoriarekin. Txillardegi ez da existitzen, ezta Aresti ere, ezta Mirande ere!

Ikusi behar da, lehenik, Miranderen garaian zer giro zen Euskal Herrian, zer idazten zen. Kostunbrismoan bizi ginen hemen, Iparraldean eta Hegoaldean; ez bakarrik kostunbrismoan, baina klerikalismoan ere. Esan nahi baita herri txikietan kleroak kontrolatzen zuen baina ez bakarrik herri txikietan: Barakaldo, Sestao eta horrelakoetan gizon batzuk, fabriketako txibato batzuk ibiltzen ziren ikusteko langileak mezan ibiltzen zirenez, zaintzen eta izenen apuntatzen. Zuberoan eta beste leku askotan ere bai, abadeak...

Zeren-eta hor badago kleroan antzinako kleroa eta modernista izango diren batzuk, esan nahi baita "modernismoa trabatuko ez dutenak", beste gauza bat da modernista izatea. Baina modernismoa onartzen zuten, berak bide horietan ez ibili arren.

1950ean ipini dut, urte hartan agertu baitzen "Euzko Gogoa" (hau Baionakoa da) eta "Egan". "Egan" ez daukat gehiago, zeren eta astoki eman ditut Miarritzeko mediatekara eta han daude nire "Egan" zahar guztiak. Hori da urte bat.

Baina Mirandek aurretik idatzi zuen 1948tik 1953raino bere obra gehiena eta gipuzkera osotuan.

XABIER AIERDI (2009-04-29)

Gaurko saio honetara nik adierazi dut badagoela nolabaiteko aro aldaketa bat, orain dela gutxi uste izan dugu euskarak egingo zuela ezagutzatik erabilerarako jauzi inportante bat, eta horrelakorik ez da gertatu. Gero, abiadura handiagoan joango zela, eta hori ere ez da gertatu...

Orduan, nik uste dut beste hainbat konturekin ere gogoeta egin behar dela, bai euskararen inguruan, bai Herri honen geroaren inguruan ere, baita produktu kulturalen inguruan, baita proposatu behar diren lehentasunen inguruan...

Nire ustez zerbait egin beharra dago, patxadaz, ikusirik euskarak, alde batetik, muga sozialak dituela, hau da, askotan pentsatzen dugu gazte jende batek ez duela hitz egiten nahi ez duelako, edo erdarara pasatzen delako, etab., baina nik uste dut horren aurrean badirela hainbat kontu; erraztasunik ez izatea, behar adinako gaitasunik ez izatea, ikasi ez izana, gazte horren hizkuntza bizikoa ez izatea...

Orduan, nik uste dut elementu horiek guztiak berrikusi egin behar direla eta hortik abiatu behar dugu lasai-lasai eta errelato berri bat sortu, gure etorkizunari buruz.

Gainera, esandakoaren haritik, nik uste dut egin behar diren hausnarketak ez direla eremu kultural hutsera mugatu behar, ene ustez heldu zaigu Herri honen geroari buruzko hausnarketa bat egiteko garaia. Hor sartu behar dugu elementu inportante bat: norekin eta nola egin gura ditugun etorkizuneko zutabeak, hots, ze jende inkorporatu behar den, zein bloke sozial inkorporatu behar den...

Ni sinetsita nago Euskal Herria eraikitzeke hiru indar nagusi eduki behar direla kontutan: ezker abertzalea, eskuin abertzalea eta ezker espainolzalea. Eta nik uste dut elementu horiek, gutxien-gutxienez horiek, akordio batera iritsi behar dutela. Berdin dit nola heltzen den horretara edo zein iristen den, baina horrelako adostasunik gabe ibiliko gara betiko leloetan eta nekez ibiliko garela bide berriak edo gauza berriak egiten. Ene ustez bi bloke horiek daude Euskal Herrian: jende erdia abertzale sentitzen da eta jende erdia espainol sentitzen denez, proiektu bat egitekotan, adostua izan behar da. Eta hor hiru subjektuak beharrezkoak dira.

AMAIA ZUBIRIA (2009-04-29)

... beraz, jakin nahi zenutela nola iritsi nintzen erabaki bat hartzera, zer suposatzen duen nire lehenagoko bizitzarekin, hauskerak edo ez...

Nik uste dut kantuak ni aukeratzen nauela, ez?, nik ez dut kantua aukeratzen. Txiki-txikitatik dakit kantuan egin nahi dudala, gero beste auto batzuk egiten ditut eta hori aparkatua bezala gelditzen da.

Baina hori hausten denean, eta ez alderantziz, badakit ziur kantura jo behar dudala. Kantura jotzen ari naiz, nahi gabe, instalatzen naiz erabat lasai, badakidalako hori dela nik egin behar dudana, eta deskubritzen dut segidan —banekien, agian lehenagotik— minarentzat musika zein den baliagarria. Baina horrek ez zidan nahikoa... niretzat ez nuen nahi terapia bakarrik izatea. Nahi nuen sortzea, zenbait

prejuizioekin, aurreiritzi establezituekin haustea eta gainditu... agian neronek ere ez bainuen sinesten hori egiteko gai izango nintzela. Eta, horregatik, lasaitasun handian, edo, batzuetan, larrian, kantuan sartu nintzen, buru-belarri.

IÑAKI MARTINEZ DE LUNA (2009-05-06)

Euskal kulturak eta nortasunak iraun dezaten eman beharreko baldintzak izango lirateke: lehendabizi, dauzkagun egoera objektiboak bere horretan onartu; errealitatearen irakurketa erreala egin (ez faltsutua); eta benetan nolakoak garen, zer daukagun, zer joko-arautan mugitzen garen onartzea. Hortik abiatuta bakarrik izango gara gai eman beharreko erantzun egokia eman ahal izateko.

Bigarren baldintza litzateke garaian garaiko baldintzak baliatzea, hau da, gaur egun teknologia berriak, globalizazioak bultzatzen eta ezartzen dizkigun aukerak, mugak... aztertu eta gure alde jarri, ahal den neurrian, kasu batzuetan dauzkaten desabantailak saihestuta.

Hirugarren baldintza litzateke euskal kultura eta euskal nortasuna bultzatzeko bi zutabe egon daitezkeela: bata da kideetasuna (herri edo komunitate bateko kideak, partaideak edo parte hartzaileak garela onartzeaz gain, badago beste parametro berri bat, postmodernismoan agertu izan dena: kontsumitzailearena, alegia. Gu guztiok, kontsumitzaile garen heinean, aukera egiten dugu egokien zaigun produktu horren alde. Hortaz, euskal kulturgintzak asmatu behar izan du bi zutabe horiek erabiltzen eta uztartzen: herri bateko kide bezala eta, bestetik, kontsumitzaile garen heinean, jokatzea.

Eta laugarren baldintza litzateke prozesu guztia euskaltasunetik gidatzea, nahiz eta prozesu honetan hainbat elementu —barruko diferentziak onartuta, izaera pluralak, euskaltasun monolitiko batetik aldenduta— Euskal Herri honek dauzkan hainbat ekarpen kultural diferente onartuta, eta baita kanpotik datozkigun hainbat eragin gure eginda, modu moldatuan (beti ere, lehen esan dugun moduan, euskaltasunaren gidaritzapean): bestela arriskua litzateke asimilazio kultural batean erortzea.

Eta hori guztia, modu antolatu eta eraginkor batean eraman behar da aurrera. Euskalgintza gaur egun sendoa da: azken hamarkadetan aurrerapauso inportanteak eman dira baina, susmoa dut ez dagoela behar besteko eta behar bezalako antolamendurik euskalgintzaren eragile eta elementuen artean modu eraginkorrago batean funtzionatu ahal izateko.

Txikiak eta baliabide eskasekoak garen neurrian, antolamendu egoki eta emankor bat izatea oso inportantea da etorkizuna bermatzeko.

XABIER LETE (2009-05-13)

Gaur hemen eta bestetan ere galdetu izan didate ea bertsolaritzak nirean eraginik izan duen. Nik esaten dut bertsolaritzak eragin handia izan zuela, forma poetiko bezala ez ezik (horrek ere eragina izan baitzuen, batez ere kantu anitz egiterakoan), transmisio aldetik ere bai.

Nik bertsolaritza ezagutu nuen mutikotan eta nerabezaroan. Oiartzunen bertsolarien hitza oso garrantzitsua zen, oso arretaz hartua izaten zen, eta bertsolariek hitza handia zuten. Baina hori, nik jaso nuena eta gero saiatu naizena transmititzen edo ematen nire kantuekin eta, gero, bertsolari historikoak kantatuz, ez zen menturazko zerbait, hori bazetorren. Oiartzunen bi erakusle on izan nituen; adibidez, Juan Mari Lekuona, euskal kultura herrikoiaz jakituria handia zuena eta horri garrantzi handia ematen ziona, eta transmisio lan hori egin zuena.

Nik uste dut transmisioa gauzatze hori oso garrantzitsua dela kultura guztietan (gurea bezalako kultura herrikoien batean, batez ere).

Gaztetan halako garai bat izan genuen guk, ikonoklasta eta aurrekoen... aurkakoa ez bazen ere, bai oso kritikoa haiekin. Eta gurekin ere hori gertatu izan da. Eta iruditzen zait gaur egun berriz ere badagoela elkar ezagutzeko, elkarrengana biltzeko eta belaunaldien lana, belaunalditik belaunaldira ezagutzeko arreta, garai batean ez zegoena.

Garai batean, behar bada, bazegoen halako haustura giro bat, beti ibiltzen ginen elkarri desafioka bezala, eta gaur badago interes bat aurrekoek zer egin zuten ikasteko. Nik uste dut interes hori sortzen gure ahalegintxoak egin genuela gure denboretan. "Ez dok amairu" taldekook zaharrak ezagutzera emanaz, eta gero Antton Valverdekin eta nik, eta bertsolaritza ezagutzera emanaz, Julen Lekuonak ere bai... eta hor egon den transmisio hori, eduki-balioen pasatze eta ezagutzera emate hori uste dut garrantzitsua izan dela guretzat eta halaxe izango dela gure ondoren etorriko direnentzat ere. Horrela mamitzen da eta horrela egiten da, nire ustez, herri baten kultura.

MARIO ZUBIAGA (2009-05-13)

Euskal kulturaren transmisioa azken hogeita hamar urteotan hegemonizazio prozesu baten emaitza izan da: gutxiengo oso txikia izatetik, %20 izatetik %40 izatera pasatu da euskal hiztunen kopurua eta gutxiengo horren jauzi kualitatibo hori hegemonizazio politiko baten emaitza izan da. Hain zuzen ere, komunitate politiko abertzaleak ekarri du hegemonizazio kulturala. Ez, noski, hegemonia kulturala, hori oraindik %40 besterik ez da euskal hiztunen kopurua, baina bai hegemonizazio prozesu bat.

Hori, hain zuzen ere, protesta-ziklo baten emaitza da, Euskal Herrian azken hogeita hamar urteotan bizi izan dugun protestaren emaitza: botere paradigmak kokatu dena eta bere amaiera aldean dagoena. Arloz arlo gertatu da hori —bai feminismoaren gaian, bai ekologiaren gaian, baita ere euskalgintzan—. Motor edo

eragile sozial hori, kanpoan zegoena, parte ez zen parte hori barneratu egin da, eraginaren politikara pasatu da, gaur egun eraginaren politikan dago bereziki euskalgintza, *lobby* lanetan ari da politika horretan eta, protesta zikloaren amaiera honetan, hegemonia politiko abertzalea ere kolokan dago, argi eta garbi.

Kolokan egotearen sintoma nabarmenena gobernu berria da, Patxi Lopezen gobernu berria. Baina, sintoma horren azpitik, krisi askoz ere sakonagoa dago: alde batetik, "garaiko izpiritua" esaten dena, mundu mailan globalizazioak dakartzan dinamika berriak, eta, gero, bestetik, kultura aniztasun hori kudeatzeko dauden ereduak porrota. Horri, noski, abertzaletasunak protesta ziklo honen amaieran bizi duen krisia gehitu zaio.

Aberrigintza abertzale horren eskutik etorri bada euskararen transmisioa orain arte eta hogeita hamar urteotan emaitza on horiek eman baditu, krisi politikoa datorrenean nola ziurtatuko da etorkizunean euskararen transmisioa eta transmisio kultural hori? Hor zabaltzen diren ereduak era askotakoak dira: batetik edukiko genuke eraginaren ereduak, orain geroz eta gehiago nagusitzen ari dena; parte bat da euskalduna, parte bat da komunitate linguistikoa euskalduna, Euskal Herrian beste batzuekin batera bidezko, legitimo, baina "beste bat" da, ez da euskal herritar unibertsalaren hutsunea betetzen duena, baizik eta askoren arteko beste bat baizik ez da. Eta, noski, emango zaio dena, eta merezi duena, daukan indarraren arabera eta daukan presentzia sozialaren arabera, ez gehiago eta ez gutxiago ere. Hori da eredu neoliberal honek azpimarratzen duen ereduak.

Bestetik izango genuke identitatearen ereduak: komunitate linguistikoa badugunez, sendo dezagun amaren su hori, sendotu dezagun tribua (Mikel Irizarrek aipatzen zuen "tribua"), sendotu dezagun, noski, teknologia berrietan oinarrituta, euskara facebook-en nagusi izan dadila Euskal Herrian, egon dadila indartsu Shangain

Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu-tituluaren 2. edizioa (2008-09)
Hizlariak elkarrizketatuta www.berria.info webean
agerturikoen transkripzioak

HUMANITATE ETA
HEZKUNTZA ZIENTZIEN
FAKULTATEA



orain jendez gainezka dagoen euskaltegia, hirietara eraman dezagun, tribu ikuspegi horrekin, komunitate linguistikoa.

LUISTXO FERNANDEZ (2009-05-20)

Interneteko panoramaz baino gehiago, kulturaren transmisioan teknologiak ekarri duen aldaketa sozial eta praktikoaz egin dut berba.

Eskasiaren kulturatik ugaritasunaren kulturara pasatu gara. Kulturak funtzionatu izan du produktu jakin batzuk (CDak, liburuak, dena delakoak) produkzio eta banaketa prozesu zail batean (produktu garestiak ziren) sortu izan dituelako.

Gaur egun banaketa doan da eta Internetek-eta ematen duten sormenerako aukera ere (sormena baldin badugu) oso handia da. Orduan, beste era batean gaude. Industria kultural horiek, argitaletxeak edo gobernuek protekzionismoz babestu nahi dituzten egitura horiek (SGAE eta horrelakoak) erresistentzia planteatzen ari dira baina nik uste dut galduta gaudela eta protekzionismo horrekin ez goazela inora.

Horrek ez du esan nahi industria kulturalak desagertuko direla. Benetako industria kultural bat behar dugu, ezagueraren gizartearentzako ezagutzarekin aberastasuna sortuko duena. Adibide batzuk eman daitezke: sormen anarkikoak eta libertateak sortu duen tresna bat da Internet eta badira beste batzuk ere; Japoniakoak aipatu ditud... Dena den, hor omen dago gakoa, etorkizuneko industria kulturala ezagueraren gizartearentzako egokitutako industria bat izan behar dela, eta ezinezkoa da protekzionismo, debeku, gehiegizko babes ofizial eta horrelakoetan aritzea sormenean eta libertatean oinarrituriko kultura batean.

IÑAKI ARTOLA (2009-05-20)

Eskoriatzara etorri naiz pentsatuz, batetik, kulturaren transmisioan zelan eta nola egiten den azalduko niela mintzaldian baina egin nahi nuena ez zen hori bakarrik. Datu batzuk eman ditut eta, nik uste, garbi utzi dut azkeneko hogeit edo hogeita bost urteotan ahozkotasuna, antzerkia, bertsoak, kanta, kontalaritza eta 1996tik aurrera, "Ulibarri" programa osatuarekin, zenbat eskola ari diren aparteko lan hori egiten...

Mahai gainean hausnarketa bat jarri nahi izan dut: nola egiten ditugun gauza horiek, zertan jartzen dugu gure begirada gauza horiek egiten ditugunean, euskalgintzan gabiltzanok gure helburua non jartzen dugun, zer da aldatu nahi duguna, alegia, uste dut portaeretan eragin nahi dugula, portaerak aldatu nahi ditugula, baina, edonola ere, gorago begiratu behar dugula: portaera horietarako bide ematen duten motor, jarrera, uste, aurreiritzi horiek, izan dituzten bizipen horiek... aztertu egin behar ditugula jakiteko zergatik gertatzen zaigun hori, zergatik dagoen portaera hori.

Hori egiteko, proposamen gisa, erabili dut Robert Dills-en piramide eta, nolabait, maila neurologikoak... Horren inguruan joan da eztabaida eta hausnarketa.

IRENE LARRAZA (2009-05-20)

Tolosako hainbat kultur ekimen edo ereduri buruz hitz egitea egokitu zait. Nik ekarri ditudan ereduak herri kulturgintzan oinarritzen dira bereziki, "Euskal kulturaren transmisioa" leloa irakurri dudanean, "transmisio" horretan batik bat jarri dudalako arreta. Beste aldetik, uste dut Tolosan egiten diren gauza garrantzitsu edota entzutetsu asko herri kulturgintza espontaneo horretatik datozela. Horrek ez du esan nahi Udalak ematen dituen zerbitzuak gutxiago direnik; garrantzitsuak dira, noski, baina beharko lukete nolabaiteko lotura beste horiekin.

Lotura beharko lukete eta lagungarriagoak izan litezke, sorkuntza-erakundeak, agian, gehiegi bereizita daudelako. Ekarri ditudan herri kulturgintza alorreko hiru ereduak izan dira:

- Tolosako Ekinbide Etxea, orain 40 urte sortu zen erakundea. Bertatik abiatu dira Abesbatzen Lehiaketa, Txotxongilo Lehiaketa, Amalur bezalako emanaldi batzuk eta honezkero Tolosa mapan jarri duten hainbat ekimen garrantzitsu.
-
- Bonberenea: gure ikur maitea eta kuttuna, momentu honetan. Etxe okupatu eta autogestionatu horretan, hasieran erresistentzia pixka bat izan zen baina oso serio, oso fin eta benetan oso modu interesgarrian eta eskuzabaltasun handiz egin dute. Hori onartuta dago: Tolosako Udalak berak ere onartu du horren balioa eta garrantzia. Oso bide interesgarria markatu dute Bonbereneakoek. Zaila, baina hor diren pertsonak asko balio dute eta beraiei esker burutu da eredu.
-
- Bukatzeko, Tolosan duela zortzi hilabete sortu den ekimena: "GKO Galeria" izena du eta, arte galeria hutsa ematen badu ere, hori baino gehiago da: arte-sormena eta –sorkuntza sustatu nahi ditu, jendeak bere proiektuekin-eta bertara joateko gonbitea egin eta martxan jartzen dituzte proiektuak bertan, kalean eta herriko hainbat lekutan... Hauek euskal kultura egin eta nazioartera hedarazten dute, harreman handiak baitituzte nonahi. Harrigarria da tarte labur honetan eginiko lan esker. Noraino iritsiko diren ez dakigu baina eredugarriak dira, nire ustez.

Hezkuntza-eskola modura, bolondres lanean, auzolanean eginiko lan horiek estimatuagoak dira herritarren aldetik (hala behar dute izan) eta, nire ustez, kultura kontsumitzeko eta kulturgintza egiteko balio dute. Geu, gerora ere, kultur parte sentitzeko.

ASIER SARASUA (2009-05-27)

Euskara Elkartea orain dela hamar bat urte sortu zen eta orduan elkartu ginen Deba eskualdean herri-hizkera kontuetan genbiltzan hainbat lagun: euskara teknikariak, euskal ikastetxeetan zebilen jendea, euskaltzaleak, itzultzaileak, idazleak... denetik.

Orduan Elkartearen helburua herri-hizkera jasotzea zen. Konturatu ginen herri-hizkera jasotzen aitzindari izan direla: aspaldikoak dira, esate baterako, Eibarren herri-hizkera jasotzeko eginiko lanak (Uribetxebarria, Imanol Laspiur, Serafin Azpiroz, Juan San Martin...) . Hor konturatu ginen azken 10 – 15 urteetan horrelako lanak asko eginda zeudela, grabazioak ere bai... Herri guzti-guztietan martxan zegoen zerbait: batean, aditza jasotzeko grabazioak, bestean ahoskera jasotzekoa, bestean herri hizkerari buruzko tesi bat...

Orduan pentsatu genuen: hori oso ona da baina, beste aldetik, ari gara herri bakoitzean lana hütsetik hasten. Beraz, indarrak batu eta lana sistematizatu egin behar da; ordura arte ibili ginen, pixka bat, bakoitza ahal zuen moduan, ahal zuen neurrian, baliabideak orain dela hamar urte ez ziren oraingoak (bideokamerak, grabagailuak, galdetegiak...), jasotzen zen material hori nola kudeatu, nola antolatu, nola katalogatu... hori guztia finkatu egin behar zela deliberatu genuen eta hor "Ahotsak" proiektua jarri zen martxan, eskualdean lehendabizi eta gero Euskal Herri osoan.

Egiten duguna da jende nagusia elkarrizketatu, grabazioak egin eta ahozko ondarea jaso, bai altxor linguistikoa (herri-hizkera) jasotzeko, baita ere etnografia, historia... ahozko memoria, herriko memoria jasotzeko, lehengo kontuak jasotzen ditugulako, batez ere.

JOXE ARANZABAL (2009-06-03)

Cluetrain manifestutik eta merkatuaren metaforatik abiatu gara: ekialdeko merkatua, mendebaldeko merkatuak... eta merkatua elkarrizketa dela esan dugu. Internet ere elkarrizketa da.

Interneten medioa geu gara, bertan hitza hartu eta hitza trukatzea geure esku dago eta kontu horietaz geroz eta sakonkiago jabetzen ari gara.

Internetek auzo-lanaren filosofiatik asko hartu du; orain *wiki* bataiatu zaio. *Wiki* moldeak hainbat eremu eta hizkuntzatan erdietsiriko emaitzak jorratu ditugu.

Ondoren, enpresa arrakastatsuek nolako ezaugarriak dituzten Interneten, mundu zabalean, ikusirik, Euskal Herrian diren adibide pare bat ikusi ditugu.

Horren ostean sartu gara "zortzigarren probintzian", hau da, euskarak Interneten daukan eremuan eta bertan, euskaraz, zer egin den begiratu dugu: euskaltzale-tipologia berriaren ezaugarriak: euskaltzale, informatikazale, Sarean lanean egiteko gertu, Internet erabiltzeko gertu...

Euskara eta erdarekin loturiko kontraesan latzak ikusi ditugu: euskara asko errebindikatu baina, askotan, espainieraz nabigatzen dugu; software librea kooperatibetan zein urrun ikusten den, etc.

Bukatzeko, merkatuetara itzuli gara: merkatu handian ingelesez nabigatu beharko dugu, ertainetan frantsesez edo espainolez, eta berariazko merkatu txikietan euskara erabili beharko dugu, hots, eukal merkatu txikia sortzeko premia dugu euskaldunok.

IGOR ELORTZA (2009-06-03)

Euskal kulturgintzaren ardatza, ene ustez, izan beharko lukeen herri kulturgintza hartu dugu aztergai. Ardatz horren bueltan bateratu beharko lirateke, batetik, kulturaren ikuspegi moderno deituko litzatekeena eta, era berean, kulturaren merkatuko ikuspegia, baina euskaldunon kasuan, iruditzen zait, Mendebaldean gailentzen dabilen kultur eredua ezin dugula mimetismoz hartu geuretzat geure baldintzak estuagoak direlako (estaturik ez dugulako, merkatu txikia garelako eta, kultur gaietan, elite kontuetan adinako ardura jarri behar dugulako kontu horiek betetzen duten funtzio sozialean eta herri mailako ekintza eta dinamiketan: hor egin behar da lana, askotan lan nekeza, gogorra, erantzun zailekoa, baina, tira, hor bilatu behar dira elkarlanak, berdinetik berdinerako parte hartzeak, hasi agintariengandik eta zaleenganaino, ekoizle, artista eta kazetariengandik pasatuta, eta horrek emango eta ematen diola euskarazko kulturgintzari behar besteko oinarria, gero, ekimen eta ekinbidean proiektu anbiziotsuagoak garatu ahal izateko, bai kuantitatiboki eta bai kualitatiboki.

ANDRES GOSTIN (2009-06-10)

Komunikazioak oro har eta bereziki hedabideek euskal kultur transmisioan zenbaterainoko eragina daukaten jorratu dugu. Ez dago gizarterik komunikaziorik gabe eta gizarte orok ere, neurri batean edo bestean, zabalkuntza-sistema bat behar du bere berri emateko.

Alde horretatik nabarmena izan dugu kultur transmisioaren barruan hitzak zer-nolako balioa eta zer-nolako garrantzia daukan transmisio horretan. Oso zabaldua dago gaur egun irudi batek mila hitzek baino gehiago balio duela, baina esaera hori ezeztatzen saiatu gara, hain zuzen ere, hitza oso garrantzitsua delako, bai pentsamenduaren sorkuntzan, baita ere mundua adierazteko era horretan. Alegia, aukeratzen ditugun hitzen bitartez adierazten dugula mundua, hitz horien bitartez, mundua ez ezik, geure burua ere erretratatu egiten dugu eta, hitzak neutroak ez direnez, ñabarduraz, beteta, daude eta, horrekin, pentsamendua eratzen eta ideologiak zabaltzen joaten dira hedabide guztiak.

Alde horretatik, bai "Euskaldunon Egunkaria" eta bai "Berria" egunkarien estilo liburuetan azaldutako printzipioen bidetik, hitz horien eta hitzaren bitartez mezuak eta ideologiak nola zabaltzen diren adierazten saiatu gara.

Horrez gain, papera eta paperezko egunkariak zer-nolako gainbehera nozitzen ari diren eta, hemendik aurrera, zein bide jorra dezaketen eta Internet bezalako fenomeno bati nola aurre egin diezaioketen ere aztertzen saiatu gara.

Garbi dago egungo hitzik nagusietako bat "digitalizazioa" dela eta digitalizazio horrek ekarri duen gauzarik garrantzitsuenetako bat konbergentzia edo bateratasuna da eta horretan aritu gara, Interneti bide eman aurretik. Eta, Internet aurrean, garbi dagoena da inork ez daukala erantzunik (datorren garaian zer etorriko zaigun, alegia), baina ezinbestean aurre egin beharko diogula, kultur transmisio horretan jarraitu ahal izateko.

JOSU LANDA (2009-06-10)

Gaurko gaia kultur transmisioa eta teknologia berriak izan da eta Interneti heldu diogu, batez ere. Ikuspuntua izan da "Armiarma.com": badira hamar urte esperientzia horretan gabiltzala; horrek zer ekarri duen edo zein hutsune izan dituen jorratu dugu. Armiarma.com Susa literatur argitaletxearen inizatiba bat dela, duela hamar urte hasi ginenean bertan ikusi genuen Internetek bazeuzkala edo eskaintzen zigula garrantzi handi-handiko baliabide bat, guk aspalditik genuen gauza bat aurrera eramateko: kultur ondarearen demokratizazioa, hain zuzen.

Hori izan dugu beti kezka, literatur argitaletxea garenez: literatur edukiak denen eskuan jartzea. Alde horretatik, Internetek eskaintzen ditu merketasuna, erraztasuna eta, guretzat oso inportantea dena, egindakoa betiko hor gelditzea.

Gure eskarmentuak erakutsi dizkigun hainbat gauzaz jardun dugu. Guk egindakoaz aparte ere, besteek zer egin duten eta zer ez duten egin eta, aurrera begira, aukera —nire ustez— historiko hori noraino galtzen ari garen. Hori jorratu dugu, hainbat datu emanez eta hainbat zertzelada erantsiz..

JOXEAN ARTZE (2009-06-17)

Horrelako gauza batera etortzen zarenean ez dakizu ondo nola hasiko zaren. Gauza batzuk prestatuta ekartzen dituzu baina, beste aldetik, badakigu bat-bateko gauza asko gertatuko direla, gero badago bertako giroa, burura etortzen zaizkizun gauzak esaten hasten zara eta, horren arabera.

Gustura aritu naiz zeren, batzuetan, gauza bat azaldu nahi duzu eta gertatzen zaizu ez dakizula edo ez duzula asmatzen edo tratatzen zarela eta konpontzen hasten zara eta okerrago izaten da, zeren, korapiloa askatu beharrean, orduan eta nahasiago egiten duzu. Beraz, pozik aritu naiz, horregatik ere. Gero, tarteka, nekea sentitu izan dut baina, nahiko ondo buelta eman diot eta... ez dakit.

Hemen egiten ari direna, gainera, oso interesgarria iruditzen zait: unibertsitate bat gauza hauetaz arduratzen hastea eta guzti hauetaz interesa hartzea guztiz berria da eta guztiz bat etorri naiz. Bide horretan, pozik ibili naiz.

GOTZON BARANDIARAN (2009-06-17)

Gaurko gaia kultur transmisioa eta teknologia berriak izan da eta Interneti heldu diogu, batez ere. Ikuspuntua izan da "Armiarma.com": badira hamar urte esperientzia horretan gabiltzala; horrek zer ekarri duen edo zein hutsune izan dituen jorratu dugu. Armiarma.com Susa literatur argitaletxearen iniziatiba bat dela, duela hamar urte hasi ginenean bertan ikusi genuen Internetek bazeuzkala edo eskaintzen zigula garrantzi handi-handiko baliabide bat, guk aspalditik genuen gauza bat aurrera eramateko: kultur ondarearen demokratizazioa, hain zuzen.

Hori izan dugu beti kezka, literatur argitaletxea garenez: literatur edukiak denen eskuan jartzea. Alde horretatik, Internetek eskaintzen ditu merketasuna, erraztasuna eta, guretzat oso inportantea dena, egindakoa betiko hor gelditzea.

Gure eskarmentuak erakutsi dizkigun hainbat gauzaz jardun dugu. Guk egindakoaz aparte ere, besteek zer egin duten eta zer ez duten egin eta, aurrera begira, aukera —nire ustez— historiko hori noraino galtzen ari garen. Hori jorratu dugu, hainbat datu emanez eta hainbat zertzelada erantsiz..

FERMIN MUGURUZA (2009-06-24)

"Sortzaileen bideak XXI. mendean" gaia ekarri dut, horretaz galdetu zidatelako, baina nik horretaz hitz egiteko nondik natorren adierazi behar dut lehenik. Horretarako, kantu baten izena eta hiru diskoren izenburuak ekarri ditut: "Ehun ginen" kanta, "Kolpez kolpe" diskotik (Mak taldearen bertsioa grabatu genuen); Negu Gorriak taldearen "Jarrera", autogestioa azpimarratzeko eta horretaz hitz egiteko, hortik aurrera, batez ere, "Esan ozenki" gure zigiluan lehena argitaratu genuena; "Brigadistak", nola jarraitu nuen bide bat, munduari begira eta bide pila bat zeharkatzen; azkenekoa izan dena, "Asthmatic lion", hamar urte pasa eta gero, filosofia berdintsuarekin, aukera eman didana orain jorratzen ari naizen ikus-entzunezkoen bideetatik abiatzeko. Dokumental bat egin dut, oso-oso bide zabala egin zaidalako horretatik.

Beraz, oraingo une honetara ailegatu naiz eta, hortik aurrera, erreferentzia gisa, datorren astean Heletan ospatuko den "Euskal Herria zuzenean", festibal horretan biltzen direlako nik betidanik defendatu izan ditudan gauza guztiak: elkarlana, auzolana, arreta eta begirunea mundu osoan diren kultura guztiei, salaketa eta jaia.

JOSEBA ZULAIKA (2009-06-24)

Nire hitzaldian diasporako euskaldunen ikuspegitik hitz egin dut nik: hemengo euskaldunok eta horkoek zein neurritan ditugun loturak eta, neurri batean, kulturaren transmisioan, kulturak ez dituela transmititzen bere aberastasunak bakarrik, bere impasseak ere transmititzen ditu, ez atzera ez aurrerako egoerak, irten ezineko horiek.

Euskal kultura impassez beterik dago une honetan: gure politikan, nazionalismoan, ETAREN inguruan, euskara beraren eta euskal kulturaren inguruan impasse handi batean bizi garela, komunikabideen bitartez hemen jasotzen ditugun oihartzunak, sarritan, estereotipoak dira: ETA dela, nazionalismoaren porrota dela... horrelako gaiak dira hemen gehien entzuten ditugunak. Adiera horretan, diasporako euskaldunok arriskua daukagu, euskalduntasun horretatik, ixteko eta euskalduntasuna memoria huts edo nostalgia bihurtzeko.

Zer aporta dezake diasporako euskaldunak? Nik uste dut, impasse hauen aurrean (eta sekula ez dira gainditzen bizitzako impasseak: generoari ingurukoak, gure nahiei dagozkien impasseak...) baina kanpoko euskalduna behartua dago impasse horiek testuinguru zabalago batera eramatera eta, hor, toki mugatuan, impasse direnak, kanpoan zaudenean garrantzia galtzen dute, ideia nagusi, fetitxe bihurtzen diren ideia asko.

Orduan, nik uste dut kanpoko euskaldunaren ekarpena dela ikustea euskalduntasunak barru-barruan baduela etendura bat, beharrezkoa duela etendura hori, identitate guztiek dutela barruan urrapen hori eta hemen, kanpoan bizi garenek, oso kontziente gara etendura horren presentziaz, zeren etendura hori besarkatu, egiten dugu. Hemen egin beharra daukagu, geureganatuaz bertako kulturak, bertako egoera politikoak, bertako munduak... ematen dizkigun gauzak gure bizitzaren parte egiten ditugu eta euskalduntasuna bizi dugu tentsio horretan. Eta tentsio horrek, uste dut, badauka bere bizitasuna eta interesa, eta horko euskal kultura orokor nahi duen horrek ikasi behar duela barne etendura horri eusten, geuregan estrainio den gauza hori preziatzen eta ez baztertzen. Horixe da euskaldunok hemendik ohartarazi behar genukeena.

EZTITXU ALFARO, ARGIA OLTZOMENDI, JEAN LEON ONDART (2009-07-01)

"Basa Haizea" kultur elkarteak orain 30 urte sortu zen Baigorriin, bertan urteoro Nafarroaren Eguna antolatzearen da ezaguna. "Basa Haizea" elkarteko hirugarren belaunaldia gara gu, hor dira gure aita-amak eta tarteko belaunaldi bat, bilakaera orokor baten testigu.

Hizkuntzaz gogoeta sakon luzea egin dugu, hizkuntza gure lehenetsuen artean sartu dugu, euskara baita guretzat inportanteena. Duela hamar urte hautua egin genuen: dena euskaraz egitea. Orduan, iaz kulturaldia antolatu genuen "Arrola" dantza taldeak eta "Basaizea" kultur elkarteak eta hasiera eman zitzaion

"Mihimena" dantzazko ikusgarriarekin: bertan, hiru belaunaldiren (12 urte dituzte gazteek eta 60 urte zaharrek) kontuak elkartzen dira gogoeta batean.

"Mihimena" dantzazko ikusgarrian nahasten dira mahastigintzako lan bizia, dantza eta Arrola taldearen historia. Bertan esku hartzen dute laurogei bat dantzarik, hamar bat musikarik eta inguruan laguntzaile asko arropak josten, apaindurak lantzen, etab. Inportantea zen guretzat belaunaldi denak gurutzatzea eta elkarrekin proiektua gorpuztea.

Hori lortzean transmisioak garrantzi handia izan du: ohitura zen familietan kantuz aritzea batean eta bestean. Bestetik, Baigorriin xantza edo suerte ona izan dugu, jendeak beti ekarri izan baitu kultur alorreko zerbait kanpotik, hala nola Pantzo Hirigarai batek beti bere toberekin, bere antzezpenekin... Jendeak beti ikusi ditu kultur ekintzak. Azkenean, dantza taldeak batetik bestera transmititu ditugu gure dantza eta ohiturak...

Orain hamabost edo hogeitun urte haustura bat izan zen: herriko besteen ikusteko manera bat. Orain arte ikusi dugu jendea ikusle-entzule joaten zela baina bat-batean ikusi dugu ez zuela deusek hartzen. Orain, gazte talde batzuek pentsaketa bat egin dute eta hor ikusi dugu ez ditugula besteengandik igurikatu behar gauzak, guk behar ditugula sortu. Horrela, emeki-emeki herritarrei eskatu zaie kantu txapelketa xume batetan parte hartzea, antzerkietan eta horrela. Eta emeki-emeki parte hartzeko ohitura bihurtu da, jendeak usaina hartu dio eta horrela sortu da "Mihimena", jendeak beti segitu duelako dantza, kantu edo musikarekin. Beraz, horrek ekarri du jende guztia partaide izatea.